

ADIERAZPEN

CAE Spain Hubek Espainiako **CAEko** kideak diren pertsonen zein instituzioen ahalegin kolektiboa uztartu nahi du honako misio bikoitz honekin: Espainiatik Europarantz eta alderantziz, informaziorako, eragin politikorako zein ekintzarako prozesuak abian jartzea; eta bertako kideen artean ikaskuntzarako nahiz laguntzarako erkidegoa elikatzea. Honako hauexek dira gidari ditugun balioak: kideak diren pertsonen eta instituzioen arteko lankidetzeta, gardentasuna, entzunaldia eta zainketa, baita Espainiako nahiz Europako artearen eta kulturaren sektorean eragina daukaten gai nagusien inguruko jarraipena eta ekintza koordinatua ere. **CAE Spain Huben** lehenengo lan-bilera Cuencan egin zen 2023ko uztailean, eta bere lanak lau ekintza-ardatz nagusi ditu helburu, beti-beti adostasuna eta koordinatutako ekintza kolektiboa kontuan hartuta:

1. Eragin politikorako estrategiak diseinatzea eta ezartzea, agiri teknikoetako adierazpenetatik abiatuta nazio-mailako eta nazioarteko instituzio publikoei galdegiteko.
2. Europako arteko eta kulturako profesionalen ordezkari diren erakundeetako partaidetza eta erabaki organoetan ordezkari izatea, **CAE** eta ustezko beste erakunde eta instituzio batzuk kontuan hartuta.
3. **CAErekin** lehendik dagoen harremana kapitalizatzea honako honexetarako:
 - Europatik jasotako informazioa eskuratzen dela ziurtatzea, **Spain Hubeko** kideek tokian tokiko proposamenak indartzeko aukera izan dezaten.
 - Nazioartekoa aztertu ahal izatea, Europaren inguruko interesa daukaten eragileen tokiko sare sendoaren arabera tokian-tokian jarduteko.
 - **Spain Hubeko** kideak integrazteko moduko ekimenak antzematea.
4. Aliantzak bilatzea eta elkarrekin lan egitea, partekatutako finantzaketa kolektiboa bilatzeko. Horretarako, garrantzitsua da beste herrialde batzuetako finantzaketa-ereduak behatzea Espainian eta Espainiatik egindako erkapen-analisietarako eta jatorrizko proposamenetarako abiapuntu moduan.

CAE Spain Hubek ikuspegia irekitzen du Europan bertan tokian tokitik pentsatzeko: hasiera batean kontraesana dirudien arren, eremu hori Europan bertan irekitzean, behar den moduko eremua sortzen da, tokian tokikoari gehiago begiratzeko eta entzuteko premiari buruz hitz egin ahal izateko eta Europako beste eragile zein erakunde batzuekin batera egituraketa aberasgarriak aurkitzeko.

CAE Spain Hubi esker, pareen erkidegoa edukitzeko lasaitasuna dugu. Izan ere, informazio-trukearen, ikaskuntzaren eta elkarren arteko laguntzaren bidez, kideak diren pertsonen eta erakundeen onurarako jardun nahi du zenbait eratara.

Spain Hubek txandakako bi urteko koordinazioa dauka, eta aldi-aldi batzartzen da, baina online, batez ere. Horrez gain, **CAEK** antolatutako topaketetan parte hartzen du, eta inguruko beste herrialde batzuetan dauden hubekin elkarrizketak ezartzea du helburu, ikasteko, jarduera egokiak trukatzeko eta behar dutenean laguntzeko. **CAEK** kidea den edozein pertsonak edo erakundek **Spain Huben** sartzeko eskatu ahal izango du. Hasierako bilera antolatuko da abegirako, eta bi alderdien aurreikuspenak partekatzea izango du xede. Bertan, gainera, kide berriak behar besteko aukera izango du, bere burua aurkezteko eta, lehen azaldutako lau ekintza-ardatz esparruan, hubean nolako ekarpena izan dezakeen adierazteko.